

Laburpena:

1. TRAFIKOA
2. GURE AUZOKO ESKOLA PUBLIKOEZ HARRO!
3. COVID
4. ESKOLA KONTSEILUA



BARRIKETAN

ATXURIKO I.G.Eko aldizkaria



TRAFIKOA ETA SEGURTASUNA

Iragan martxoaren 25ean, Eskolako zuzendaritza, hiru ama eta Udaleko honako arduradun hauek bildu ziren: Segurtasunekoa, Mugikortasunekoa eta Hezkuntza Sailekoa:

Bilkura hasi eta 10 minutura, Adolfo Alustiza Segurtasuneko zuzendaria, 10 minutu berandu iritsita zegoena, altxatu eta joan egin zen, hau argudiatuta: **"ez zait behar bezain garrantzitsua iruditzen hitz egiten ari garena"**, **"gauza garrantzitsuagoak dauzkat egiteko"** eta **"ez didazue esango nola egin nire lana"**. Hori guztia esan zigun, eskatu genionean mesedez, Udaltzaingoak Eskolako sarrera eta irteeretako trafikoa arautzeko duen presentziari buruz argibideak eman zitzaizkion. Aurrekoari gehitu zion, adeitasunez, "Lege-iruzurra" egiten ari ginela, kontzentrazio-baliabidea erabiltzen genuelako.



Hala ere, bilkurak honako hau eman zuen haren presentziarik gabe:

Ignacio Aldekoak Mugikortasuneko zuzendariak baieztatu digu, autobusak San Anton zubian geldituko direla ekainera arte gutxienez, eta laster seinale bat jarriko dietela, adierazteko ordutegi horretan ezin direla Eskolatik igaro.

Errepide orokorreko marra etena kentzeko eskatu genien eta egin dute, autoak Eskola kalera sar ez daitezten, Miraflores = >alde zaharreko norabidean baldin badatoz.

Udaltzaingoa kenduz gero, Eskolak berak kono edo hesi batzuk jartzeko eta kentzeko erantzukizuna bere gain hartzea proposatu dugu, autorik pasa ez dadin. Zuzendaritzak Hezkuntzara zein Mugikortasunera bidali du eskaera, neurria azter dezaten eta horretarako baimena eman dezaten, eta onartu digute eskaria, hots, badugu hesia.

Bestetik:

Behin eta berriz esan dugu beharrezkoa dela Eskolako perimetro osoa egituraz birplanteatzea. Horretaz mintzatzeko, berriro elkartuko gara haiekin, urtarrilean egin genuen bezala, hausnarketa orokorrago bat egiteko. Izan ere, datozen hilabeteetan Bilbobuseko zerbitzua berrantolatzeke mozioa onartu du Udaleko osoko bilkurak orain egun gutxi. Aukera dugu Atxuriko busen goiburua kendu edo lerroak murrizteko.



GURE AUZOKOESKOLA PUBLIKOEZ HARRO!

Aurreko martxoaren 18an Bihotzean auzo elkarteak deituta batzarra egin genuen Zazpi Kaleetako La Bolsa zentroan: Solokoetxeko Guraso elkarte, Atxuriko Zuzendaritza zein guraso elkarte, Mujikako guraso elkarte, Bidegintza, Atxurigorri eta Hijas de la Cruzeko irakasleak bildu ginen haiekin. Kanpaina bateratua egitea adostu genuen.

Helburua: Gure auzoetako Hezkuntza eskaintza publikoa bermatzea ziklo guztietan. Horretarako, auzo elkarteak zein auzokideak inplikatu dituen dinamika bateratuari ekingo diogu, iragan azaroaren 19an egin genuen manifestaldiaren segida gisa:

-Manifestu bateratu bat aurkeztuko dugu, eta horren bitartez apirila eta maiatza bitartean antolakunde zein norbanakoen babesak bilduko ditugu.

-Parlamentura joko dugu gure kezka eta proposamenak helarazteko:

-Apirilean, gure eskolen egoerari buruzko hainbat galdera erroldatuko ditugu.

-**Maiatzaren 10ean** Hezkuntza batzordera joango gara gure gabezi eta alternatibak aurkezteko.

-Mobilizazio informatiboa egingo dugu: **MAIATZAREN 13an 17:30etan** Solokoetxeko eskaileretan. Koloreztutako kalejiran hurbilduko gara bertara!!



COVID

-Batzordeak eta guraso elkarteak eskatuta, atzeko patioa kolunpioen erabilera berrantolatzeko eskatu zitzaion zuzendaritzari, haurrek gehiagotan erabil zitzaten, eta horrela izaten ari da.

Era berean, aurreko patioa erdibitzen duen banaketa kentzea proposatu zen lehen hezkuntzako ikasleentzat, maskarila daramatenez eta espazio irekia izanik, ez bailuke arrisku gehigarririk ekarriko. Zuzendaritzak jakinarazi digu eskolako Batzorde Pedagogikoak ez duela egokitzat jo eta, beraz, jolastokiak bi zatitan banatuta jarraituko duela.



ESKOLA KONTSEILUA

Martxoaren 17an izan zen. Honako gaiak landu genituen:

-Zuendaritza proiektua: Gure zuzendariak hurrengo lau urteetan jarraitzeko proiektua aurkeztu du Hezkuntza Sailean. Batzorde ofizial batek oneritzia emotekotan aurrera joko du. Batzorde horretan IGEko kide batek hartuko du parte. Oraindik ez dugu proiektua ezagutzeko aukerarik izan.

-Bidelagun Proiektua: Onartu egin genuen hurrengo kurtsorako.

-Matrikulazioa: Azken matrikulazioko konpuruen berri izan genuen. Hainbat kurtsotan geratu dira haurrak kanpoan, bereziki 2 urteko gelan.

-Liburutegiko proiektua: Dakigunez, Joseba jubilatzen da eta kolokan geratzen da liburutegiko proiektua ezagutu dugun bezala. Hezkuntza Sailak ez ditu horrelako proiektuak babesten. Hurrengo ikasturtean, agian, jarduera erdiko laguntza egon daiteke liburutegia eramateko jantokiko orduetan. Nolahani ere, hurrengo ikasturtean baino ez da izango, eta guztion esku dago, eskola komunitate osoaren esku hain zuzen, alternatibak bilatzea proiektu honek etorkizunean aurrera egin dezan.

-Harro dinamikaren inguruko informazioa partekatu genuen.

-Batzordeak:

Bizikidetza: Elkartu dira dagoeneko. Gailuen (mugikor, smartwach, ea.) erabileraren inguruko kezka aritu ginen eta arauak ezarri beharraz. Kontseiluak babestutako protokoloa jarriko du Eskolak martxan.

Euskara: Oporren ondoren bilduko da.

-Hamaiketako osasuntsuaren erabakien berri eman ziguten. Zuzendaritzak jakinarazi duenez, zenbait jarraibide ezarri dira Lehen Hezkuntzako ikasleek eskolara ekartzen duten hamaiketarako.

